



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa oharra

Batzar Nagusien Osoko Batzarrak 16 aztergai izango ditu eguenean, euron artean Foru Arau Proiektu bi

Bilbo, 2012ko bagilaren 20a.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Ana Madariagak, Osoko Batzarrerako deia egin dau datorren eguenerako, ekainaren 21erako, goizeko 9:00etan hasita Gernikako Batzarretxean egingo danerako. Urteko seigarren Osoko Batzarra izango da eta Foru Arau Proiektu bi eztabaidatuko dira bertan, bata udalei ekitaldi honetarako daukiezan zorpetze-mugak aldatzeari buruzkoa eta, bestea, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoa aldatzeari eta Errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantziarazino erispideei buruzkoa. Batzar Nagusien webgunean (www.jjggbizkaia.net) zuzenean ikusi leiteke Osoko Batzarra.

Osoko Batzarraren gai-zerrendan hiru Itaun dagoz lehenengo. Lehenegoa Kulturako Foru Diputatuari zuzenduta dago. Josune Ariztondok erantzun egin beharko deutso BizkaiKOAre lehenengo jarduera urtearen ostean helburuak bete izanaren inguruan Aldundiak egiten dauen balorazinoari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoari. Talde berberak beste Itaun bat be aurkeztuta dauka, eta hor Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Itziar Garamendik, bizikletetarako aparkalekuak Aldundiaren egoitzetan eta Bizkaibusen autobusetan egokitzeari buruzko argibideak emongo ditu.

Beste alde batetik, Bildu Taldeak azalpenak eskatu deutsoz Aldundiari hondakinak kudeatzeko sistemak izan beharreko norabideari buruz. Talde horren eretxiz, Europako Batzordeak hondakinak kudeatzeko modu iraunkorrakoak sustatzea gomendatzen dau, albo batera itxita errausketagaitik edo isurketengaitik ordaintzearen aldeko hautua eta atez ateko bilketaren alde eginda, Gipuzkoako zenbait udalerrietan egiten ari dan erara. Ganera, bosgarren edukiontziaekin Aldundiak bete nahi dituan helburuak ezagutu nahi ditu.

Aldundiaren ordezkariak azalpenak eta gero, ahozko erantzun-eskeak etorriko dira. Socialistas Vascos Taldeak eskatuta daukotso Lehendakaritzako Foru Diputatuari, Juan Mari Aburto, argitu dagiala Ibarra auzia deritxanaren inguruan Epaitegi Gorenak emondako 905/2012 Epaia dala-ta zergaitik esan eban “konformeago” egoala Bizkaiko Entzutegi probintzialak emondako epaiagaz Auzitegi Gorenak emondakoagaz baino.

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak Ahaldun Nagusiaren azalpenak entzun gura ditu zergapeko bizkaitarren zerga-datuaren filtrazinoei buruz, Melchor Gil jaunaren eta bere emaztearen zerga-datuak zenbait hedabidetan zabaldu izanari buruz hain zuzen be. Ahozko erantzun-eske hori aurkeztu eta aste bete bi beranduago Ogasuneko Foru



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Diputatuak, José María Iruarrizaga jaunak, ekainaren 7an izandako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean jakinerazo ebazan kontu hori dala-ta Foru Ogasunak egindako barruko ikerketearen ondorioak, eta bertan esan eban gertatutakoaren erantzukizuna Aldundiarena zanik esateko ez zala “inolako arrastorik” ikusi ikerketa horretan.

Eztabaidatuko dan beste aztergai bat izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Araua aldatzeko Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoa. Talde horrek gura dau “%50eko salbuespena izan dagiela kostu bidez eskuratutako hiri higiezinak eskualdatzetik agertutako ondare irabaziek”, beste gauza batzuen artean.

Ostean, Batzarkide-Taldeek aurkeztutako mozinoak etorriko dira. Horreek dirala-ta, Aldundiak azalpenak emongo ditu enpresa leihatilaren zenbait gora-beherari buruz, BUHKPIren errebisinoaren arabera Zabalgarbiko planteak erabilten ez dauen (%10) gaitasunaren inguruko aurreikuspenei buruz eta Errigoitiko Udalak sustatu nahi dauen biomasa zentralari buruz.

Aurreko Osoko Batzarretan gertatu izan dan moduan, oraingo honetan be Arauz Besteko Proposamenak eztabaidatuko dira azkenean. Bildu Taldeak bi ditu aurkeztuta, bata Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko baldintzen aldaketari buruz, eta bestea Politika publikoen ebaluazio osoari buruz. Bizkaiko Talde Popularrak bat aurkeztuta dauka, politika publikoen eta zerbitzu publi-koen kalidadearen ebaluazinoari buruzkoa. Eta Socialistas Vascos Taldeak beste bat dauka aurkeztuta, Espainiako Gobernu ezarten ari dan gizarte-murrizketei buruz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

El Pleno de este jueves abordará 16 asuntos en el orden del día entre los que se encuentran dos Proyectos de Norma Foral

Bilbao, a 20 de junio de 2012.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha convocado un nuevo pleno para mañana jueves, 21 de junio, que se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika a partir de las 9 de la mañana. Será el sexto pleno del año y en él se abordarán dos Proyectos de Norma Foral, uno que pretende modificar para este ejercicio las limitaciones de endeudamiento de los Ayuntamientos, y otro que cambiaría, de aprobarse, el Régimen Jurídico de los peajes de las carreteras de Bizkaia, así como los criterios de financiación para la modificación del Plan Territorial Sectorial de Carreteras. La página web de las Juntas (www.jjggbizkaia.net) retransmitirá en directo la sesión.

El pleno comenzará con tres interpelaciones, dos de ellas presentadas por el Grupo Popular. En la primera, la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, tendrá que valorar la creación de la sociedad Bizkaikoa después de que haya transcurrido más de un año desde que se creara esta entidad foral nacida para gestionar los museos de Bizkaia. A petición del mismo grupo, la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, informará sobre la respuesta dada por su departamento a la petición de las Juntas Generales para que se instalen aparcamientos de bicicletas en dependencias forales y en los autobuses de Bizkaibus.

Por su parte, el Grupo Bildu ha solicitado explicaciones a la Diputación en torno a “las líneas a seguir en el futuro en la gestión de los residuos”. Según este grupo, la Unión Europea recomienda impulsar modos más sostenibles de gestión de residuos, dejando de lado políticas de incineración y vertido, y optando por sistemas de recogida puerta a puerta, en clara referencia al que viene funcionando en algunos municipios de Gipuzkoa. Además, quieren conocer los objetivos marcados por la Diputación con el quinto contenedor.

Las explicaciones de los responsables del gobierno foral seguirán con la fórmula de la pregunta oral. El Grupo Socialistas Vascos solicita una respuesta en el pleno al Diputado de Presidencia, Juan María Aburto, para conocer “las razones que le obligan a decir que se siente ‘más conforme’ con la Sentencia dictada por la Audiencia Provincial de Bizkaia, en la causa seguida contra el Jefe de la Inspección de Hacienda, Juan Ramón Ibarra”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

A su vez, el Grupo Popular Vizcaíno desea que el Diputado General ofrezca explicaciones en el Parlamento de Bizkaia en relación a los datos fiscales de contribuyentes vizcaínos hechos públicos por varios medios de comunicación, en referencia a la documentación publicada sobre Melchor Gil y su esposa. Esta iniciativa parlamentaria se presentó dos semanas antes de que el Diputado de Hacienda, José María Iruarrizaga, hiciera público en la Comisión de Economía y Hacienda del 7 de junio, las conclusiones de la investigación interna practicada en la Hacienda foral en relación a este caso, y donde negó la existencia de “indicio alguno” para determinar que la Diputación era la responsable de estos hechos.

Por otro lado, el Grupo Popular ha presentado una iniciativa para que las Juntas Generales modifiquen el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Este grupo quiere que queden “exentas en un 50 por ciento las ganancias patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión de inmuebles urbanos adquiridos a título oneroso”, entre otras cosas.

A continuación, llegará el turno de la mociones. A través de diferentes iniciativas de los grupos junteros, la Diputación tendrá que informar sobre diferentes aspectos relacionados con la ventanilla empresarial, con la previsión del uso de la capacidad no utilizada (un 10%) según la revisión del PIGRU de la Planta de Valoración de Residuos de Zabalgarbi y con la Central de biomasa que pretende impulsar el Ayuntamiento de Errigoiti.

Como ya ocurriera en plenos anteriores, la sesión de este jueves concluirá con las proposiciones no de norma. Se debatirán y votarán dos proposiciones del Grupo Bildu sobre los cambios en las condiciones para la percepción de la Renta de Garantía de Ingresos y sobre la evaluación integral de las políticas públicas. A través de esta fórmula, el Grupo Popular Vizcaíno quiere que la Cámara vizcaína se pronuncie sobre la evaluación de las políticas públicas y de calidad de los servicios públicos. Y la sesión finalizará con una propuesta del Grupo Socialistas Vascos sobre los recortes sociales que el Gobierno de España viene aplicando.